



## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/ 2014 ikasturtea**

**EUSKAL AUTORE ZAHARREN IRAKASKUNTZA LEHEN HEZKUNTZAN:  
PROIEKTU BERRITZAILE BATEN PROPOSAMENA**

**Egilea: Janire Arenaza Abarrategui**

**Zuzendaria: Céline Mounole Hiriart-Urruty**

**Leioan, 2014ko ekainaren 13an**

© 2014, Janire Arenaza

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
1.1. Zer da obra klasiko bat? .....	6
1.2. Zergatik irakatsi klasikoak Lehen Hezkuntzan? .....	8
1.3. Klasikoak irakasteko mugak eta hauei aurre egiteko moduak .....	9
1.4. Klasikoak Lehen Hezkuntzan irakasteko metodologiak .....	10
2. Metodologia .....	12
3. <i>Klis-klas klasikoak!</i> proiektu berritzailearen proposamena .....	13
3.1. <i>Klis-klas klasikoak!</i> proiektuaren aurkezpena .....	13
3.1.1. Proiektuaren abiapuntua .....	13
3.1.2. Proiektuaren izaera eta justifikazioa .....	13
3.1.3. Proiektuaren helburu didaktikoak .....	14
3.1.4. Proiektuan zehar landutako oinarrizko gaitasunak .....	15
3.1.5. Hartzaileak edo/eta onuradunak .....	16
3.1.6. Kokaleku fisikoa .....	16
3.1.7. Proiektuaren saioak eta jarduerak .....	17
3.1.8. Irizpide metodologikoak .....	17
3.1.9. Proiektuaren denboralizazioa .....	18
3.1.10. Baliabideak .....	19
3.1.11. Ebaluazio irizpideak .....	19
3.2. <i>Klis-klas klasikoak!</i> bilduma .....	20
4. Emaizak eta ondorioak .....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	23

### ERANSKINAK

1. eranskina. <i>Klis-klas klasikoak!</i> proiektuaren jarduerak .....	26
2. eranskina. <i>Klis-klas klasikoak!</i> bilduma. Bizitza, testuingurua eta obrak .....	40

## **EUSKAL AUTORE ZAHARREN IRAKASKUNTZA LEHEN HEZKUNTZAN: PROIEKTU BERRITZAILE BATEN PROPOSAMENA**

**Janire Arenaza Abarrategui**

UPV/EHU

Lan honek euskal autore zaharrak Lehen Hezkuntzako ikasleei hurbiltzea du helburu. Ezinbestekoa da neska-mutilek ikasgeletan klasikoen ondarea ezagutzeko aukera izatea, euskal autore zaharren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua suspertzeko. Izan ere, idazle klasikoak oinarritzko hezkuntzan duten tokia ez da handia izan, hauek lantzeak zailtasunak dakartzalako. Beraz, zailtasun horiek aztertuta eta lekuko idazle ezberdinen lan hautatuen egokitze-lana aintzat hartuz, proiektu berritzaile baten proposamena eskaini nahi da, euskarazko literatura zaharra irakurtzeko eta lantzeko zaletasuna sustatzeko bidea erakusteko asmoz. Horrela izanik, ikasleek euren neurrira eta interesetara moldatutako egitasmoa eskura izango dute, egungo hezkuntza-sisteman beharrezkoak diren oinarritzko gaitasunak barneratuz, beti ere gaiarekiko motibazioa eta jakin-mina aintzat hartuta.

*Proiektua, irakaskuntza, klasikoak, irakurmena, berrikuntza*

Este trabajo tiene como objetivo acercar a los/las alumnos/as de primaria los autores clásicos vascos. Es imprescindible que los chicos y chicas en las aulas tengan opción a conocer el patrimonio de los clásicos para reforzar el proceso de enseñanza-aprendizaje de los autores antiguos. De hecho, el sitio que ocupan los escritores clásicos en la Educación básica no es grande, ya que trabajar con estos conlleva ciertas dificultades. Por tanto, estudiadas esas dificultades y realizando un trabajo adaptado a las obras de los diferentes escritores locales, se quiere proponer un proyecto innovador, con el propósito de enseñar el camino a la afición de la lectura de la literatura vasca antigua. Así, los/las alumnos/as tendrán a su disposición un plan diseñado acorde a ellos/as y sus intereses, interiorizando las competencias básicas necesarias del sistema educativo de hoy día, teniendo en cuenta la motivación y curiosidad hacia el tema.

*Proyecto, enseñanza, clásicos, lectura, innovación*

Ce travail a pour objectif rapprocher à les/las élèves/as de primaire les auteurs classiques basques. Il est indispensable que les garçons et les filles dans les salles aient une option à connaître le patrimoine des classiques pour renforcer le processus d'enseignement-apprentissage des auteurs antiques. De fait, l'endroit que les écrivains classiques occupent dans l'Éducation basique n'est pas grand, puisque travailler avec ceux-ci supporte certaines difficultés. Donc, étudiées ces difficultés et en réalisant un travail adapté aux oeuvres de différents écrivains locaux, un projet innovateur veut se proposer, avec le propos d'apprendre le chemin au penchant de la lecture de la littérature basque antique. Ainsi, les/las élèves/as auront à sa disposition un plan dessiné conforme à leurs et ses intérêts, en intériorisant les compétences basiques nécessaires du système éducatif de nos jours, en tenant en compte de la motivation et la curiosité vers le sujet.

*Projet, enseignement, classiques, lecture, innovation*

## Sarrera

Lan honen bidez, euskal autore zaharrak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin nola landu daitezkeen aztertu nahi da, beti ere ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua esanguratsua izan dadin abiapuntu izanda. Gizabanako orok kalitate onekoa den hezkuntza jasotzeko aukera izan behar duela aldarrikatzen dugunean, gizartean oinarritzko ezagutzat hartzen direnak eskuratu ahal izateko, autore eta obra klasikoen irakurketa eta lanketa helburu utziezina bilakatzen da. Halere, maiz klasikoak irakasteak sor ditzakeen mugak -obren aldaera linguistikoak eta hauen ulermen eta grafia arazoak- hauek behar bezala ez lantzeak dakar, hortaz, egungo ikasgeletan gaia jorratzeko metodo berritzaile baten beharra dugu.

Berrikuntza ikuspegitik abiatuz, eta ikasleen adinera eta beharretara moldatutako proiektu baten proposamena diseinatuz, euskal autore zaharren irakurketa bere osotasunean sustatzeko bidea urratu nahi da; obren testuinguru historikoa aintzat hartuz, hauek eskaintzen duten ondare historikoa ezagutzeko eta ulertzeko. Horretarako, *Klis-klas klasikoak!* proiektuak fase ezberdinetan antolatutako saio eta jarduera berezi batzuk bere gain hartuko ditu, emaitza gisa ikastetxean euskal autore zaharren inguruko erakusketa bat eginez, autore zaharrak ikasgelara hurbiltzeko asmoz, beti ere neska-mutilek gaiarekiko motibazioa eta interesa izan dezaten.

Berrikuntza proposamen honek, *Klis-klas klasikoak!* diseinatutako bilduma abiapuntu du. Euskadi mailan, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan euskal autore zaharrak zehazki lantzeko material berezirik oraindino ez da sortu, beraz, bilduma honek berebiziko garrantzia izango du, irakasleek nahiz ikasleek lekuko autore zaharrak beharbezala lantzeko aukera izateko. Bilduma honek klasiko ezberdinen obrak euskara batura egokituak ditu, idazle zahar bakoitzaren bizitza eta testuingurua atxikita duelarik, XVI-XIX. mende bitarteko obren pasarteak hobeto ulertzeko asmoz.

Proiektu berritzaile honen proposamena giltzarri izanda, beraz, ikasleriak lekuko autore zahar garrantzitsuenetarikoak ezagutzeko aukera izango du, eta hauek plazaratutako obren pasarte esanguratsuak ezagutzeko, irakurtzeko eta lantzeko parada izanez, beti ere metodologia tradizionaletik at aginez, ikasleengan sortzen duten aurreiritziak alboratuz. Horrela, klasikoen lanketa metodologia berritzaile batetik abiatuz, hauek modu dinamikoan lantzea posiblea dela plazaratu nahi da, aurrerantzean eta etorkizun gertu batean, hezkuntza-sisteman hobekuntzak sortzeko asmoz, eta azken finean, literatura

zaharraren aldeko jarrera euskal gizartean hedatzeko apustua eginez, azken urteotan Estatu mailan egin den legez.

### 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Euskal Autonomi Erkidegoko hezkuntza sisteman orain arte autore zaharrei eskaini zaien garrantzia ez da handiegia izan. Hauen irakurketak ikasleengan sor ditzaketen mugak, klasikoak, neurri batean, alde batera uztea eragin du. Honen inguruan Mercé Romanik (2011:1) ondokoa adierazten du: “Parece que los clásicos debieran ir directamente a la papelera nada más iniciada la lectura a causa de la dificultad lingüística y contextual que presentan. Y esto ocurre y ha ocurrido mucho es nuestras escuelas, salvo por espíritu ecológico se opte por no programarlos con vistas a no desperdiciar papel”.

Egungo hezkuntza sistemako errealitatean, klasikoek betetzen duten lekua oraindik ez da handia. Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumaren 97/ 2010 Dekretua sakonki aztertuz gero, edukien artean “Literatura-hezkuntza” hirugarren multzoaren barnean, literatura tradizionala aurkitzen da, baina klasikoei buruzko aipamen edo eduki berezirik ez da zehazten.

#### 3. eduki multzoa: Literatura-hezkuntza

- Gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura-testuak, ziklora egokituak, adi entzutea eta ulertzea.
- Haur-literaturako obrak, **literatura tradizionalekoak** eta herri-literaturakoak irakurtzea, zenbait euskarritan. Idazleen adinera eta interesetara egokitutako obrak izan behar dute, eta, irakurri ondoren, norberaren eta besteren esperientziak erkatzea.
- Olerkiak, ipuinak eta antzezlanak irakurtzea eta entzutea.
- Literatura-testuak antzeztea edo antzeztuz irakurtzea, doinu, ahoskera eta abiadura egokiz
- Abestiak, olerkiak eta bertsoak ulertzea, buruz ikastea eta errezeitzea [...]
- Esapideen, esamoldeen eta esaera zaharren esanahia ulertzea eta erabiltzea.
- Bertsoak egitea, landutako ildoei jarraituz.
- Plangintza bat egin ondoren, zenbait ereduri jarraituta, olerkiak eta kontakizunak irudikatzea eta sortzea [...]
- Aurrez planifikatuta, irakurtzera bultzatzen duten aipamenak eta laburpenak sortzea [...]
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuez ohartzea.
- Ahozko literaturako eta literatura idatziko generoak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.
- Literaturaren beste irizpide batzuk: komikia, zinema.
- Jarraibide batzuk betez erabiltzea gelako liburutegia, bideoteka eta Internet [...]
- Literatura-testua komunikazio-bidetzat hartzea [...]

Horrela izanda, ikastetxeetan klasikoei eskaini behar zaien arreta handiagoa izan beharko litzateke. Izan ere, Machadok (2002:37-38) baieztatzen duen bezala, gizabanako guztiok haurtzaroan literatura obra garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izan beharko genuke: “Cada uno de nosotros tiene derecho a conocer -o al menos saber que existen- las grandes obras literarias [...]. Varios de esos contactos se establecen por primera vez en la infancia y juventud, abriendo caminos que pueden recorrerse después nuevamente o no, pero ya funcionan como una señalización y un aviso.”

Azken urteotan, hain zuzen ere, Estatu mailan lekuko klasikoak Lehen Hezkuntzan lantzearen aldeko apustua egiten ari da, obra klasiko batzuk (*Don Quijote de la Mancha*, *La Eneida*, *La Odisea*, besteak beste) irakurle gazteen neurrira moldatuz eta egitasmo bereziak abian jarritz, ikasgeletan hauek irakurtzeko eta lantzeko asmoz. EAEn, aldiz, badirudi dagoeneko ez zaiola arreta berezirik eskaini, ez baitago euskal autore zaharren inguruko eskulibururik edota hezkuntza programa berezirik.

### 1.1. Zer da obra klasiko bat?

"Klasikoa" hitzaren inguruan egindako definizioak anitzak dira, ez baita erraza definizio bakar batean klasikoa zer den azaltzea. Honen inguruan, Gonzálezek, Ruizek, Cocak eta Lachicak (2013:3) ondokoa argitzen dute: "Todos quienes han definido el concepto de «clásico» coinciden en el argumento del paso del tiempo como requisito imprescindible para aceptar la consideración de «clásico» en un libro". Definizio hori abiapuntu izanda, lan bat klasikotzat jotzeko erabiliko ditugun irizpide nagusienak, beraz, denbora eta perspektiba izango dira.


Dena den, Italo Calvinok *Por qué leer los clásicos* (1993) liburuaren hitzaurrean idatzitakoa da, ziur asko, klasikoaren definiziora egindako hurbilpenik ezagunenetakoa baina baita ere konplexuena: "Clásicos son los libros que constituyen una riqueza para quien los ha leído y amado, pero que constituyen una riqueza no menor para quien se reserva la suerte de leerlos por primera vez en las mejores condiciones para saborearlos."

Gure esparrura egokituta, euskal obra klasikoak zein diren zehaztu eta haien artean aukeraketa egiterakoan, zailtasunak izan arren, finkatutako kanon batez jardun behar dugu. Baina zer esan nahi du *kanon* hitzak? Enric Sullàk (1998:11) honela adierazten

du: “Una lista o elenco de obras consideradas valiosas y dignas por ello de ser estudiadas y comentadas.” Askotan hezkuntza sistemak ez du hain beharrezkoa ikusten kanon hori finkatzea, eta hori lehenengo arazoetariko bat da. Carlos García Gualek (1998:36) ziurtatzen duen bezala, ikasleek euren ibilbide akademikoan kanon klasikoaren beharra dute: “La institución escolar tiene, por lo que toca a fijar un canon clásico, una responsabilidad evidente. Para su educación, los jóvenes deben encontrar una pauta de excelencia, una lista sugerente, efectiva y ejemplar de los mejores escritores, artistas, creadores y pensadores del pasado.” Hori dela eta, hezkuntzan euskal autore zaharren lanketarako, *kanon literarioa* deritzona behar-beharrezkoa dugu.

Kanon literario baten lanketan irizpide batzuk aintzat hartzea beharrezkoa da. Garrantzitsua da irizpide horiek sendoak, objektiboak eta inpartzialak izatea. Cerrilloren (2007: 9) ustez, hurrengoak egon beharko lirateke:

1. Testuen kalitate literarioa ezartzen duten obrak.
2. Obren egokitzapena ikasleen gaitasun eta interesekiko; horra hor Haur eta Gazte Literaturaren garrantzia edozein kanon literarioaren barnean.
3. Obren hautaketa egokia, irakurleek gaitasun literarioa eskuratzen laguntzeko.



1. irudia: Even-Zoharren "La Teoría de los Polisistemas" (1978).

Argitu beharra dago, kanon literarioa mugikorra edo dinamikoa izan behar dela, hots, beharrezkoa dugunean aldaketak egin behar direla, ikastetxeko edo ikasgelako egoeretara moldatuz, beti ere ikasleen adina eta euren gaitasun literarioa abiapuntu izanda. Even-Zoharren (1978) “*La Teoría de los Polisistemas*” deritzona, kanon

aldaketa horiek hobekien azaltzen dituen da. Zoharrek dio sistema literarioa, sistemen sistema bat dela, hau da, *polisistema* bat. Bertan erdigune bat dago, klasikoak (dimentsio unibertsala) kokatzen diren lekuan, alegia, eta kanpoaldean beste literatura obra guztiak kokatzen dira. Sistema hau aldakorra da, beraz, erdigunean dagoen obra bat desagertu daiteke edota kanpoaldeko obra bat erdigunean kokatu, irakasle nahiz ikasleen premiak asetzeko asmoz.

## 1.2. Zergatik irakatsi klasikoak Lehen Hezkuntzan?

Egun, literatura lan klasikoen ezagupenaren garrantzia, gizabanako ororen prestakuntza bidean aho batez onartua izan da, sabuespenak salbuespen. Obra zahar hauek eskaintzen duten hizkuntza aberastasuna, sentimenduen konplexutasuna eta balio literarioak eta kulturalak, urteen eta mendeen poderioz mantentzea eragin dute, egun oraindik ere interpretatzeko amaitezinak diren obrak bihurtuz eta ondorioz, hezkuntza programetan altxor bilakatuz. Gonzálezek, Ruizek, Cocak eta Lachicak (2013:3) diotenaren arabera, heziketa humanistikoak klasikoak eskaini behar ditu, ikasleek hauen eskutik kultura eta ohiturak, besteak beste, ezagutuko baitituzte:

[...] también debe ofrecer clásicos, porque los componentes de una colectividad deben sentir que el mundo que transmiten esas obras es propiedad de quienes la constituyen. Además, la formación humanística debe sustentarse, entre otros pilares, en la lectura de los clásicos, porque en sus historias y en sus textos está contenida buena parte de la cultura y la tradición del mundo, ya que son modelos de escritura literaria y una herencia dejada por nuestros antepasados. (González, Ruiz, Coca, Lachica, 2013:3).

Teresa Colomerrek (2010) *Introducción a la Literatura Infantil y Juvenil* liburuan, eskoletan autore zaharrak lantzearen aldeko apustua ere egiten du, arrazoi sendoak adieraziz. Bere ustez, literatur tradizioko obrak irakurtzearen arrazoiak bi dira: batetik, jendarte-lotura ezartzea, eta bestetik, zentzua ezartzea. Colomerren hitzetan, jendarte-lotura ezartzeko, obra ezberdinetan agertzen diren pertsonaiak eta egoerak oso garrantzitsuak dira, horiei esker ulertuko baitugu garai hartako testuingurua, eta ondorioz, nolakoa den egungo gizartea. Egun, gero eta gizarte zatikatuagoan bizi gara, beraz, ondare horrek pertsonen arteko loturak ulertzen laguntzen du. Colomerren aburuz, obra klasikoak ezagutzeak eta irakurtzeak, hortaz, gizabanakoei euren buruaz hausnartzeko eta mundua hobeto ulertzeko bidea erakutsiko die.

Helburu nagusi horiek eskola-testuingurura ekarriz, Colomerren arabera, honako inplikazioak ditu klasikoak irakurri eta lantzeak: hobekien taxututako testuak ezagutzea, testuartekotasunarekin gozatzen ikastea eta ondorioz, horren atzean dagoen



berrirakurketaz jabetzea. Baina xede horiek lortzeko, klasikoen corpus egoki bat eskura izatea beharrezkoa da.

Badira aditu batzuk, aldiz, obra klasiko bat ulertzeko, literatura gaitasuna behar-beharrezkoa dela esaten dutenak, hortaz, hauek beste adin batzuetan irakurtzea proposatzen dute. Gainera, denborari egiten diote erreferentzia, gizarte aldaketak edota hizkuntzaren bilakaerak, besteak beste, ikasleengan eragozpenak baino ez dituztela sortzen azpimarratuz. Arrazoi hauek esfortsu gutxiago eskatzen duten liburuak irakurtzea eragin du, ikasleei gehiago gustatuko zaizkiela arrazoituz, eta irakurketa hauek aurrerago kalite handiagoko beste liburuak irakurtzeko bidea izango direla esanez. Hala ere, lehen aipatu dugun bezala, datuek baieztatzen dute oso zaila dela hezkuntza aldian obra klasiko bat ezagutu eta irakurri ez duenak beranduago irakurtzea. Bestetik, egiaztatu da, irakurtzeko errazak diren liburuek ez dutela kalitate literarioa sustatzen. Hori dela eta, irakurmenaren maila jaitsi beharrean, aberatsak diren elkarrekintza testuinguruak sortzea beharrezkoa da errekurso ezberdinak erabiliz, ikasleei laguntzeko bidea emanez eta egoera motibagarriak sortuz; beti ere aberastasun kulturalaz eta linguistikoaz goza dezaten.

Italo Calvinok *Por qué leer los clásicos* (1993) liburuaren izenburuaren bidez proposatutako galderak (Zergatik irakurri klasikoak?) azken urteotan indar berezia hartu du. Askok hurrengo galdera mahaigaineratzen dute: zergatik irakurri behar dira lan klasikoak, gaur egungo HGL (Haur eta Gazte Literatura) ekoizpen zabal eta gaurkotua eskura izanik?

Heziketa literarioak testuekin gozatzea eta sormena bultzatzea izan behar du helburu, eta aldi berean, obra kanonikoen ezagutza hurrengo belaunaldiei transmititzea, horiek bere testuinguruan eta historian kokatuz. Bi helburu hauek ez dira lehian egon behar; azken finean, irakurle trebeak trebatu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa dirudi obra kanonikoak irakurle gazteen esku jartzea.

### **1.3. Klasikoak irakasteko mugak eta hauei aurre egiteko moduak**

Klasikoak irakasteko topa ditzakegun mugak anitzak dira, hortaz, ikasgelan hauei aurre egiteko moduak aintzat hartzeak garrantzi handia du. Obra klasikoen beharbezalako lanketa lortzeko, hainbat arazo kontuan hartu behar ditugu: ulermen arazoak (testuingurua eta lexikoa edo hiztegia), aldaera linguistikoak eta grafia arazoak. Bat gatoz Gonzálezek, Ruizek, Cocak eta Lachicak (2013:4) diotenarekin:

Uno de los objetivos básicos de la lectura debe ser el placer de leer, ampliando nuestros conocimientos del mundo. Se trata de un objetivo que no siempre se cumple cuando un joven se enfrenta a la lectura de una obra literaria clásica, porque se encuentra con ciertas dificultades que entorpecen su comprensión del texto: el vocabulario, el contexto en que fue escrita la obra, las causas que pudieron provocar la redacción de la misma, etc. Por ello, en algunos casos, será conveniente que exista una preparación previa, de modo que la lectura pueda realizarse con cierto éxito. (González, Ruiz, Coca, Lachica 2013:4).

Klasikoak lantzeko lehenengo muga, beraz, ulermen arazoak dira; erabiltzen den hiztegia eta kokatzen diren testuingurua, alegia. Oso garrantzitsua izango da ezezagunak diren hitzak behar bezala lantzea, hauen ordez ikasleei ezagunak zaizkien sinonimoekin landuz. Testuingurua lantzeko, ikasleek aurreprestaketa baten beharra izango dute (zein garaitan kokatzen den obra, zer gertatu den aurretik jakitea, etab). Ikasleek euren burua garai horretan kokatzea beharrezkoa da, obraren atzean dagoen testuartekotasuna ulertu ahal izateko.

Euskal klasikoak irakurtzeko eta lantzeko orduan, bigarren muga bat ere planteatu behar da, aldaera linguistikoei eta hitzen grafiei dagokiena. Ibon Egañak (2010:38) honen inguruan aipatzen du euskal idazle batzuen euskara urrun dagoela irakurle gehiengo baten euskaratik. Aukeretako bat, batetik, hauek egokitzea izan daiteke, jatorrizko testuaren aberastasun linguistikoa murriztuz eta euskara unformatuz, euskalkiek sor dezaketen urruntasuna gutxitzeko, beti ere grafia egokituz. Eta bestetik, obra klasikoen artean zati ezberdinak hautatzea, hauek askotan ez baitira oso-osorik irakurri behar euren mamiaz gozatzeko.

Klasikoek sor ditzaketen arazoei aurre egiteko, hortaz, estrategia ezberdinak erabili behar dira, irakurtzearen "derrigortze" hori malguago bilakatzeko; batetik, obren testuartekotasuna lantzea -hiztegiari eta testuinguruari arreta berezia eskainiz- eta bestetik, testuen egokitzapenak egitea, irakurketa zatikatuak abiapuntu izanda. Garrantzitsua da aipatzea, Euskal Herrian ez dagoela euskal autore zaharren inguruko eskulibururik, hots, Lehen Hezkuntzari egokitutako antologiarik ez dela diseinatu ezta sortu ere. Beharrezkoa izango litzateke, beraz, oinarrizko hezkuntzan klasikoen antologia bat izatea, aipatutako muga horiei aurre egiteko baliabidea eskura izateko, bai ikasleek, baita irakasleek ere.

#### **1.4. Klasikoak Lehen Hezkuntzan irakasteko metodologiak.**

Behin euskal klasikoak irakasteko mugak eta hauei aurre egiteko moduak aztertuta,

arreta handia eskaini behar zaio hauek irakasteko metodologiari. Metodologia bat edo beste aukeratzeak, emaitza ezberdinak sortuko ditu ikasleengan eta funtsean, klasikoak ikasteko prozesuan.

Azkenengo urteotan, hezkuntza-sisteman klasikoen lanketak garrantzi handia hartu izan du, baina hauek lantzeko gain hartzen den lan nekezak, ikasleek gaiarekiko aurreiritziak izatea eragin dezake. Jaime Garciak (2000:1) ondokoa baieztatzen du: "Son muchos más los estudiantes que asocian el nombre de autores y obras clásicas a las imposiciones de un profesor preocupado por cumplir con un determinado programa educativo, donde se incluyen esas lecturas como requisito indispensable para conseguir una calificación positiva".

Klasikoak lantzeko giltzarri den metodologiari ez dagoela argitu beharra dago; egoera bakoitzak metodologia zehatz baten laguntza behar baitu. Halere, autore ezberdinek baieztatzen dute, klasikoak lantzeko ikasleriaren inplikazioa, partaidetza, elkarrekintza eta lankidetzaren sustatzen duten komunikazio-jarduerak ezberdinak abiapuntu izan behar direla. Klasikoak material didaktiko apartak dira, gaitasun hauek guztiak martxan jartzeko. Oso interesgarria da Sergio Palacios (2011:1) irakurmenaren motibazioan eta gaitasunen inguruan argitzen duena, izan ere, euskal gizartean klasikoekiko jarrera ez bada baikorra, irakurmena ikasgela barruan baino haratago gozatzeko aukerak gutxituko dira :

Debemos motivar a nuestros alumnos a la lectura de nuestro patrimonio literario y brindarles las herramientas para que sean capaces de disfrutar de los textos como obras de arte. Desarrollar sus competencias culturales no es algo que pueda llevarse a cabo en un día, pues se necesita un trabajo paulatino y constante. Es una labor que solo puede llevarse a cabo de una forma correcta si las actividades de la clase pasan a integrar, de manera natural materiales literarios. Hay que sembrar la idea, tanto entre los profesores como entre los alumnos, de que a través de los textos literarios se accede a un universo cultural enormemente rico, que no debe quedarse encerrado en los ámbitos académicos, además de, por supuesto, ser el camino para alcanzar el placer de leer. (Palacios, 2011:1).

Klasikoak irakasteko metodologia barne, ezin ahantz daiteke ikastetxeko beste eragile batzuen eginkizunak; gurasoen parte hartzea, alegia. Ikastetxea, beraz, irakasle, ikasle eta gurasoek osatu behar dute, egungo gizartean, euren seme-alaben garapenaren parte izatea funtsezkotzat jotzen baita. Jaime Garciak (2000:2) honen inguruan ondokoa argitzen du: "[...]aunque hablar de la literatura en la escuela implica a los niños, también debe implicar a los maestros y a la familia. Estos dos agentes resultan imprescindibles en la iniciación a la literatura".

Irakaslearen rola ere bereziko garrantzia izango du, klasikoen lanketaren emaitzetan. Irakasleak ezaugarri eta betebeharrak izan behar ditu bere menpe. Irakaslearen papera ez da edukiak azaltzera mugatu behar, prozesuaren gidaria izan behar da, ikasleak "egiten ikasten" horretan bideratuz eta ikasgelan sortzen diren egoerak probetxuzkoak bilakatuz. Cristina Sandoval (2012:1) askotan irakasleek ez dutela bere botere pedagogikoa aintzat hartzen eta horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan mugak sortzen dituela dio: "Sin embargo, la mayoría de los docentes no conocen su verdadero potencial pedagógico, ya que a menudo, su uso queda limitado exclusivamente hacia comprensión lectora, lo que les lleva a desaprovechar las oportunidades de aprendizaje que encierran".

## **2. Metodologia**

Lanaren inguruko informazioa biltzeko eta aztertzeko, batetik, gure esparruaren inguruan egindako bilaketak eta bestetik, bilaketen emaitza gisa lortutako irakurketak oinarri izan dira.

Datuak edo informazioa biltzeko, egindako bilaketa ezberdinek garrantzia handia izan dute, prozesuan aurrera joateko urratsak marrazteko aukera eman baitigute. Hasiera batean, gure burua gaian kokatzeko eta ikuspuntu orokor batetik ulertzeko asmoz, bilaketak orokorrak izan dira. Aurreragoko bilaketak, aldiz, zehatzak izan dira, euskal autore zaharren irakaskuntza Lehen Hezkuntzan sakonki aztertzeko asmoz.

Behin informazioa bilduta, bilaketa horretan lortutako baliabide ezberdinak irakurtzeari ekin zaio; liburuak, artikulak eta web orrialde ezberdinetako informazioa, alegia. Irakurketak burutzeko prozesua zehatza izan da; informazioa irakurtzea, hautatzea eta aztertzea, hain zuzen. Eta hortik abiatuz, gure esparruko alderdi ezberdinak egituratzeari ekin diogu, irakurketa horiek gure lana bideratzeko baliabide nagusiak izan baitira.

Informazioa aztertuta, beraz, gure lana egituratzeari ekin diogu. Irakurlea gaian kokatzeko asmoz, orain arte literatura zaharrean zer egin den jasotzea beharrezkoa iruditu zaigu eta klasikoak zer diren zehaztea eta azaltzea, esparruaren inguruko kontzeptuak ulertzeko. Hortik abiatuz, klasikoen irakaskuntza Lehen Hezkuntzan zergatik garrantzitsua den lantzea aztertu dugu eta hauek lantzeko zailtasunak edo mugak identifikatu eta nolabaiteko irtenbideak eman ditugu, gaiaren ikuspegi osoa izateko asmoz. Eta amaitzeko, autore zaharrak lantzeko metodologiaren azterketa egin

dugu, gure esparruan garrantzi handia duen alderdia baita, azken finean, euskal autore zaharren irakaskuntza prozesua esanguratsua lortzeko urratsa delako. Hortaz, jasotako datuak edota informazioa orokorretik zehatzerainoko ibilbidea irudikatzen oinarritu da, gaiaren ikuspegi ahalik eta osatuena lortzeko asmoz.

Informazioaren bilketa prozesua eta bertan aztertutako baliabideak, beraz, hezkuntza-berrikuntza proposamena sortzeko lagungarria eta beharrezkoa izan zaigu, aditu ezberdinen azterketa edota ikerketa ezberdinek euskal gizarteak eta zehazki, EAEko hezkuntza-sistemak zeren beharra duen jakiteko giltzarria izan baita. Horrela izanda, proiektu berritzailearen proposamenaren diseinua, esparru teorikoan aztertu denaren araberrako erantzuna ematen ahaleginduko da, landutako informazio guztia abian jarritz.

### **3. *Klis-klas klasikoak!* proiektu berritzailearen proposamena**

#### **3.1. *Klis-klas klasikoak!* proiektuaren aurkezpena**

##### **3.1.1. Proiektuaren abiapuntua**

Indarrean dagoen Euskal Autonomi Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma 7/ 2010 Dekretuak jasotzen duen bezala, Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua pertsona era integralean eta harmoniotsuan garatzea da, alderdi intelektualean, afektiboan eta sozialean. Horrela izanik, ezinbestekoa da hizkuntza eta literatura ikastea, hots, jarduera sozial eta indibidual bakoitzean hizkuntza erabiltzeko ahalmena lantzea, eta literatura-testu adierazkorrek zentzuz irakurtzeko trebetasunak eskuratzea.

Hori dela eta, Oinarrizko Hezkuntza etapan literatura-hezkuntzak ikasleengan esperientzia atseginak sustatu behar ditu, literatura-testuak irakurriz eta ikertuz, irakurzaletasuna bultzatzeko eta literatura-lanen adierazpen artistikoa eta ondare-balioa aintzat hartzeko, Curriculuma aldarrikatzen duen bezala. Eta horixe da, hain zuzen ere, **Klis-klas klasikoak!** proiektuaren xede nagusia.

##### **3.1.2. Proiektuaren izaera eta justifikazioa**

Ikastetxeetan, klasikoen irakurketa hutsak eta horren inguruko irakurketa-ulermena lantzeko egiten diren ariketek, ez dute ikasleen irakaskuntza-prozesua esanguratsua ziurtatzen. Metodologia dinamiko eta motibagarri batetik abiatuz, eta estrategia eta baliabide ezberdinak erabiliz, autore zaharrak metodo ezberdin baten bidez lantzea lortu

nahi da, beharrezko helburu didaktikoak barneratzeko asmoz.

Proiektuak, beraz, euskal autore zaharrak ikasleei hurbiltzea du helburu, fase ezberdinetan taxututako jardueren bidez. Horrela izanik, klasikoak bere osotasunean landu nahi dira; euskal autore zaharrak ezagutzuz eta obren pasarte aukeratuak landuz, beti ere garai horretako testuingurua ezagutzuz, sortu ditzaketen mugak apurtzeko eta ulermena ziurtatzeko.

*Klis-klas klasikoak!* proiektuaren bidez, beraz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleriak saio ezberdinetan taxututako jarduera sortzaileak oinarri izango dira, klasikoak ezagutzeko, lantzeko eta hauetaz gozatzeko aukera izan dezaten, prozesuaren amaieran klasikoen erakusketa bat eginez. Horretarako, proiektuak, hiru hilabeteko iraupena izango du eta lau fase nagusitan banatuta egongo da, ikasleek euskal autore zaharren mundua ezagutzeko asmoz, apurka-apurka gaiaren inguruan zertzelada txikiak emanaz.

### **3.1.3. Proiektuaren helburu didaktikoak**

Proiektu honek ondoko helburuak (orokorrak eta zehatzak) lortzea du xede:

#### Helburu orokorrak:

- Hezkuntza komunitatean irakaskuntza praktikaldi aproposak zabaltzea.
- Obra klasikoak ikasleak komunikatzeko, mundua irudikatzen, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko iturria izatea.
- Ikasleen sentikortasun estetikoaren handitzea, hizkuntza aberasteko eta nortasun soziala, kulturala eta pertsonala eraikitzen.
- Gizarte-hedabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz komunikatzea eta lankidetzan aritzea.
- Informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, norbanako jakintzak eraikiz.
- Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea, ahoz nahiz idatziz.
- Diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.

#### Helburu zehatzak:

- Ikasleei euskal autore zaharren obra ezberdinen irakurmena hurbiltzea, tresna eta lan ereduak eskainiz, kultur jakintza aberasteko.

- Jarduera ezberdinen bidez, estrategia ezberdinak aurkeztea klasikoak ezagutzeko.
- Kanon literarioa ezagutzea eta honetaz gozatzea.
- Ikasgelan klasikoen irakurmena eta interpretazioa sustatzea.
- Jarrera ona eta konfidantza izatea norberak klasikoak ikasteko duen ahalmenean.
- Euskal literatura zaharreko lan garrantzitsuenen irakurmenaz gozatzeko bidea ematea.
- Gure literatura klasikoaren ibilbide historikoaren berri izatea.
- Pasarte aukeratuen bidez, testu zaharren berezitasunez eta aberastasunez ohartzea.

### **3.1.4. Proiektuan zehar landutako oinarrizko gaitasunak**

Proiektuaren planteamenduak ikasleek derrigorrezko eskolaldian eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak ditu oinarri. Gaitasunetan oinarritutako irakaskuntzak ikasleek “egiten ikastea” du helburu, hortaz, proiektuak osatzen dituen jarduera ezberdinen bidez oinarrizko gaitasun guztiak garatzen lagunduko du. Proiektuan zehar, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna zuzenean landuko da, gainontzeko oinarrizko gaitasunak zeharka landuz:

#### *1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.*

Proiektuak mundua interpretatzea, mezu ezberdinak aztertzea, bizimodu bakoitzaren arrazoiak eta ondorioak zentzu osoz argudiatzea eta jakintzaren gainean modu bateko edo besteko diskurtsoak eraikitzea ahalbidetzen du.

#### *2. Ikasten ikasteko gaitasuna.*

Arazo ezberdinak aztertzea eta hauek konpontzen ikastea ahalbidetzen du, beharrezkoa denean erabakiak hartuz. Bestalde, jakintza berriak eraikitzeko bidea ematen du.

#### *3. Matematikarako gaitasuna.*

Klasikoak lantzerakoan, matematikako oinarrizko kontzeptuak erabiltzen dira; informazioa edo datuak adierazteko eta interpretatzeko (datak irakurtzea, idazlanen sekuentziak ordenatzea, etab.) aukera ematen du.

#### *4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.*

Jakintzak finkatzeaz gain, harremanak ezartzea eta bestelako munduak ezagutzeko eta gogoeta egiteko aukera ematen du. Bestalde, arrazoibideak aztertzeko eta gogoeta egiteko bidea zabaltzen du eta ikasleen komunikazio-gaitasuna garatuz,

testuak ulertzeko eta sortzeko aukera eskaintzen du, beti ere modu koherentean eta kohesionatuan.

*5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.*

Teknologia digitalaren bilakaerari esker, batetik, ikasleek komunikatzeko modu berriak eskuragai dituzte, eta ondorioz, literatura esparrua elkarkidetzan lantzeko eta jakintza elkarlanean eraikitzeko aukerak eskaintzen ditu. Eta bestetik, informazio esanguratsua euskarri ezberdinetan aurkitzen eta hautatzeko aukera ematen du, testuak eraikiz.

*6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.*

Proiektuaren garapenak negoziatzeko, ikuspuntuak hurbiltzeko eta gatazkak konpontzeko bidea ematen du. Jarduera guztiak gizarterako harremanen oinarri eta abiapuntu dira, giro bakoitzean arrakastaz molda daitezten. Azken finean, pertsonen arteko harremanen bidez ikasten da; gelan parte hartuz eta taldean ikasiz.

*7. Giza- eta arte-kulturarako gaitasuna.*

Obra klasikoak irakurri, interpretatu eta balioestekak, literatura-ondarean sakontzeko bidea ematen dute; literaturaren adierazpenak artearen beste adierazpen batzuekin lotuz. Ikasleak espazioan eta denboran urruti dauden kultura-tradizioekin eta errealitateekin bat egiteko aukera izango du.

*8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.*

Hizkuntzan trebatuz garatu egiten da ekimen pertsonala eta norberaren jarduteko modua arautzen da, gero eta era autonomoagoan. Hizkuntza bide ezin hobea da barne-prozesu emozionalak eraikitzeko eta komunikazio-trukeen bidez nortasuna eraikitzeko. Gainera, hizkuntza erabiltzen ikasteko prozesuaren bidez, oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta nork bere ikaskuntza arautzen du.

### **3.1.5. Hartzailleak edo/eta onuradunak**

Proiektua hirugarren zikloko 6. mailako ikasleriari bideratuta dago. Klasikoak lantzeak, heldutasun maila bat izatea eta gaitasun literarioa, neurri batean, eskura izatea eskatzen du, hortaz, proiektua aipatutako zikloan lantzea bideragarriagoa da lortu nahi den xedea arrakastaz gauzatzeko.

### **3.1.6. Kokaleku fisikoa**



Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan aplikatu daiteke, baldin eta ikasleak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ikasten badute.

### 3.1.7. Proiektuaren saioak eta jarduerak<sup>1</sup>

Proiektua gauzatzeko, saio batzuk egingo dira eta saio bakoitza jarduera ezberdinez osatuta egongo da. Jarduerak sekuentzia zehatz bat izango dute abiapuntu, lortu nahi den helburua bete dadin ziurtatzeko asmoz. Sekuentzia ondoko faseen emaitza izango da:

**a) Esplorazio-fasea:** Lehenengo fase honetan, gaiaren ikaskuntzaren hasieran, alegia, ikasleek ikaskuntza bideak eta hauetan erabiliko diren ideiak apurka-apurka identifikatu beharko dituzte.

1. jarduera "Euskal autore zaharren txokoa"
2. jarduera "Klasikoak gure eskura!"

**b) Ideia berrien sorrera fasea:** Fase honetan, ikasleen pentsaeraren garapenari lagunduko zaio, ideia ezberdinen eboluzioa eta erabilera indartuz eta bultzatuz, bere ezagutzak beste ikaskideekin alderatu ahal izateko.

3. jarduera "Obra zaharren aipuak twitteatzen"
4. jarduera "Jakin badakit!" \*(2 saio)

**d) Berregituraketa fasea:** Fase honetan, ikasleen ezagutzen egituraketa eta formalizazioa bultzatuko da.

5. jarduera "Klasikoak apaintzen!"
6. jarduera "Besteen iritziak garrantzitsuak dira!"

**e) Aplikazio fasea:** Azkenengo fase honetan, ikasleek ikasitako ideia berriak egoera berri eta ezberdinetan (erakusketa batean) aplikatzeko gai izan beharko dira ikaskuntza esanguratsua eta baliogarria lortzeko. Ikasleek hasierako ideiak edo ikuspuntuak alderatzeko gai izatea garrantzitsua izango da, bere ikuspuntuetatik hausnartzeko eta ondorioz, autoebaluaketa egiteko.

7. jarduera: "Euskal autore zaharren erakusketa"
8. jarduera: "Zein kolore naiz?"

### 3.1.8. Irizpide metodologikoak

Proiektua gauzatzeko erabiliko den metodologikoa eta hortaz, kontuan hartuko diren

---

<sup>1</sup> Ikus 1. eranskina: *Klis-klas klasikoak! proiektuaren jarduerak*, 26.or.

irizpide metodologikoak, Jean Piageten eta Lev Vigotskyren *Konstruktibismoa* teoria pedagogikoa (XX.mendea) oinarrituko dira. Ikaslea bera izango da ikaskuntza-prozesua eraikiko duena, aurretik barneratuta dituen gaitasunak eta trebeziak oinarri izanda, ikasiko dituen eduki edo elementu berriak eskema orokorragoetan txertatuz. Ikaskuntza-prozesua, beraz, erabilgarritasunean eta ulergarritasunean oinarrituko da. Prozesu hau aktiboa izango da, eta talde lana egiteaz gain, modu indibualean ere aurrera eramango du. Hortaz, ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista izango da eta irakaslearen eginkizuna ikaslea prozesu horretan gidatzea izango da.

Konstruktibismoarekin jarraituz, proiektua David Ausubelen *Ikaskuntza Adierazgarria* teorian (1963.urtea) ere oinarrituko da, gure metodologiarekin bat egiten baitu. Ikaskuntza esanguratsua lortzeko, garrantzitsua izango da aurretik ikasleak zer dakien aztertzea. Informazioa berria aurretik dakienarekin lotuko du, ikasketa garatzea ahalbidetuko duena, eskema berriak sortuz.

Proiektua aurrera eramateko, beraz, erabiliko diren irizpide metodologikoak hurrengoak dira:

- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua "egiten" oinarritu behar da, hori dela eta proiektuan prozedurazko eta jarrerazko edukiak nagusi dira, kontzeptuzko edukiak abiapuntu izanda.
- Ahozko hizkuntzari (entzumena eta mintzamena) garrantzi handia ematen zaio, ezinbestekoa baita komunikazio gaitasuna lortu nahi baldin bada.
- Irakaslearen rola bitartekariarena da eta ikasleena, aldiz, prozesuaren protagonistarena. Izan ere, ikaslearen ezagutzak eraikitze-prozesu baten emaitza dira.
- Ikaskuntza prozesuan, uneoro ikasleen motibazioa abiapuntua izango da, hori dela eta, hauen jakin-mina pizteko eta erronka berriak izateko, berebiziko garrantzia dute landuko diren saio ezberdinak eta horretarako erabiliko diren baliabide anitzak.
- Ikasleen interesetik eta errealitatetik hurbil dauden jarduerak eskaintzen dira, pixkanaka aurrera egiteko aukera emango dieten jarduerak egiten eta ikaskuntza eraikitzen ari direla senti dezaten.

### **3.1.9. Proiektuaren denboralizazioa**

Proiektua euskara ikasgaia orduetan landuko da eta kurtsoaren hirugarren hiruhilekoan gauzatzeko pentsatua dago, hots, apiriletik ekainera bitarteko hilabeteetan. Izan ere, kurtsoan zehar curriculumak aipatzen dituen edukiak lantzeko aukera izan dute, beraz,

azkeneko hiruhilekoan egitea aproposena dela erabaki da, ikasleak trebatuagoak egongo baitira proiektua gauzatzeko.

### 3.1.10. Baliabideak

Proiektua gauzatzeko baliabide batzuk beharrezkoak izango dira. Ondorengoak dira:

<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<b>BALIABIDE MATERIALAK</b>	<b>BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Tutoreak (Hirugarren ziklokoak)</li> <li>○ Ikasleak (Hirugarren ziklokoak)</li> <li>○ Gurasoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskal idazle zaharren liburuak</li> <li>○ <i>Klis-klas klasikoak!</i> proiektuaren fitxak</li> <li>○ <i>Klis-klas klasikoak!</i> bilduma</li> <li>○ Margoak eta errotulkiak</li> <li>○ Kartulinak eta folioak (kolorezkoak)</li> <li>○ Artaziak eta kola</li> <li>○ Arkatzak eta boligrafoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ordenagailu eramangarriak</li> <li>○ Internet konexioa</li> <li>○ Inprimagailua (hautazkoa)</li> <li>○ Mikrofonoak</li> </ul>

### 3.1.11. Ebaluazio irizpideak

Proiektua gauzatzen den heinean, tutoreak ikasleen ebaluazio jarraia egingo du, beraz, proiektuan zehar egindako jarduerak garrantzia handia izango dute. Horretarako, aintzat hartuko diren irizpideak ondokoak dira:

- Lan klasikoen oinarrizko esanahia ulertzen du, informazio garrantzitsuena jasotzeko eta beste egoera batzuetan aplikatzeko.
- Ikastetxeko eta ikasgelako literatura-jardueretan parte hartzen du, gainerakoei begirunea erakutsiz.
- Literatura-obrak irakurtzen ditu, une atseginak igarotzeko.
- Gogotsu parte hartzen du jarduera ezberdinetan, elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.
- Baliabide teknologikoak erabiltzen ditu, informazioa bilatzeko eta antolatze eta zalantzak argitzeko.
- Hizkuntza-komunikazio gaitasuna pixkanaka garatzen du, jarduera ezberdinetan parte hartuz.
- Euskal autore zaharren obren pasarte ezberdinen berezitasunez eta aberastasunez ohartzen da.

### 3.2. *Klis-klas klasikoak! bilduma*<sup>2</sup>

Lehen Hezkuntzan euskal autore zaharrak lantzeko egokitutako antologiarik ez dago, beraz, Oinarrizko hezkuntzan klasikoen bilduma baten beharra dago literatura zaharrak sortu ditzakeen zailtasunak areagotzeko; batetik, irakasleen lana erraztuko duen baliabidea eskura izateko, eta bestetik, ikasleen adinera eta gaitasunetara moldatutako obra ezberdinen pasarte aukeratuak ikasgelan lantzeko aukera izateko.

*Klis-klas klasikoak!* bildumak, beraz, batetik, zazpi euskal autore zahar esanguratsuenen bizitza eta testuingurua biltzen du, eta bestetik, autore bakoitzaren obra garrantzitsuenen pasarte aukeratu bana aurkezten du, jadanik euskara batuan moldatuak. Aukeratuak izan diren idazleak eta hauen obren laginaren justifikazioa, bi arrazoi izan dira bide; batetik, literatura zaharraren ibilbidean garrantzi handiena izan duten idazleak biltzea, eta bestetik, ikasleen adinera eta interesera hurbiltzen diren pasarteak aukeratzea. Ikus ditzagun mendez mende, bilduma osatzen duten idazleak eta obrak:

#### ► XVI. Mendea

- Bernart Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), Sautrela.
- Joan Perez de Lazarraga "Lazarraga", *Eskuizkribua* (1567), Aitak ezkontzen ez banau.

#### ► XVII. Mendea

- Pedro Agerre "Axular" *Gero* (1643), Gomendiozko karta.

#### ► XVIII. Mendea

- Joanes Etxeberri "Etxeberri Sarakoa" *Lau-urdiri gomendiozko karta edo ghutuna* (1718).
- Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka* (1802), Diálogo cuarto.

#### ► XIX. Mendea

- Bizenta Mogel, *Ipuin Onak* (1804), Lehoia eta saga.
- Agustin Paskual Iturriaga, *Ipuinak* (1842), Adiskide bi eta hartza.

Literatura zaharrea aurki ditzakegun autoreak anitzak dira, hortaz, aukeraketa xehetasunez egin da. Bildumak XVI. mendetik XIX.mendera bitarteko idazle

---

<sup>2</sup> Ikus 2. eranskina: *Klis-klas klasikoak! bilduma. Bizitza, testuingurua eta obrak*, 40.or.

garrantzitsuenak biltzen ditu, literatura zaharraren nolabaiteko bidaia kronologikoa egiteko. Obren pasarte ezberdinak ere, xehetasun osoz aukeratuak izan dira ikasleen ikaskuntza prozesua esanguratsua izateko. Horretarako, testu-mota ezberdinak aukeratu izan dira; olerkiak, gutunak, alegiak, besteak beste. Eta gai ezberdinak jorratzen dituen testuak bildu dira: maitasuna, erlijioa, euskararen aldarrikapena, animaliak, etab.

Idazleen bizitza eta testuingurua osatzeko, autoreen datu garrantzitsuenak eta esanguratsuenak laburtu izan dira. Izan ere, gure helburua ez da irakasleek autore bakoitzaren inguruko gora-behera guztiak jakitea, baizik eta idazleen biografiaren laburpen osatua eskura izatea, euren irakaskuntza-prozesua errazteko asmoz. Idazleen pasarte aukeratuak osatzeko, hauen obrak zehatz-mehatz aztertu izan dira, ahalik eta kalitate handiko bilduma plazaratzeko.

Testuak egokitzeko, beraz, hainbat irizpide kontuan hartu dira. Ezinbestekotzat jo da idazleek idazteko era, bilduma honen helburua ez baita obrak euskara batura egokituz, garai hartako idazleek euren lanen bitartez eskainitako estetika kutsua galtzea (errimak, hitzen arteko jolasa, besteak beste), beraz, hauek errespetatu izan dira. Hori dela eta, testuen egokitzapena ondoko aldaketetan oinarritu da:

### **1. Grafia euskara batura egokitua izan da.**

Autoreek garai hartan erabiltzen zuten grafia, egungo grafiara egokitua izan da, ikasleek irakurmena erraztasun osoz egiteko. Adibidez, *olluak* (oiloak), *errijetan* (herrietan), *ikhasten* (ikasten).

### **2. Lexiko ezezaguna, sinonimoengatik ordezkaturia izan da.**

Perpausetan badira hitz batzuk ezezagunak direnak ikasleentzako, beraz, hauek egungo sinonimoen ordezkaturia dira. Esate baterako, *txit* (asko), *baga* (gabe).

### **3. Aditz trinkoen ordezkaturia, perifrastikoak erabili dira.**

Ugariak dira idazleek darabiltzaten aditz trinkoak, beraz, ulermena errazteko, aditz hauek perifrastikoen ordezkaturia izan dira. Adibidez, *dakus* (ikusten du).

### **4. Egitura konplexu bat edo beste, egitura ezezaguna batengatik ordezkaturia izan da.**

Obra batzuen pasarteetan, badira egitura batzuk ikasleen ulermenetik aldentzen direnak, beraz, hauek ikasleek egun darabiltzaten egituren ordezkaturia dira. Esate baterako, *ezta munduan morroerik* (ez da munduan mutil gazte ezkongaberik).

Bilduma honi esker, beraz, irakasleek ikasleekin euskal autore zaharrak osotasunez

lantzeko aukera izango dute, eta bestetik, ikasleek euren ikaskuntza esanguratsua bilakatzeko euskarria izango dute, lekuko idazleen obren bidez gozatuz eta proiektua arrakastaz gauzatuz.

#### **4. Emaitzak eta ondorioak**

Lan honen bidez, euskal autore zaharrak Lehen hezkuntzako eskoletan beharbezala landu daitezkeela erakutsi nahi izan da. Orain arte gure hezkuntza-sisteman klasikoak lantzearen aldeko aurreiritziak nagusi izan dira, nahiz eta azken urteotan adituek aztertu eta erakutsi duten, hauek landu behar direla, beti ere beharbezalako metodologia eta baliabideak erabilia. Eta horixe bera izan da gure lan honen abiapuntua, aurreritzi horiek alboratzea, erakutsiz klasikoak normaltasun osoz jorratu daitezkeela eskolan lantzen diren beste alor batzuk bezala.

Gure hezkuntza-berrikuntza proposamenak, klasikoak irakurri eta lantzeak garrantzitsua dela mahaigaineratu nahi izan du. Euskal autore zaharrak lantzea, ikasleentzat ez baita irakurketa soila eta aspergarria izan behar, denboraren poderioz gorrotatu eta ahaztuko dutena. Izan ere, hauek egitasmo baten bidez landuz, ikasleen alderdi ezberdinetan (intelektualean, afektiboan eta sozialean) sortu ditzaketen onurak anitzak eta garrantzitsuak izan daitezke. Ikasleek literatura zaharra proiektu baten bidez landuz, egun gizartean hain garrantzitsuak diren oinarrizko gaitasunak barneratzeko aukera izango dute eta pertsona gisa era integralean eta harmonitsuan heitzeko bidea erakutsiko die. Klasikoak lantzeko darabilgun metodologia, beraz, funtsezkotzat jo izan da. Badakigu, egungo hezkuntza-sistemak lan handia egiten ari dela eskoletan metodologia tradizionaletik at egiteko, beraz, gure esparruak ere esfortsu horren beharra daukala ezin dugu ukatu.

*Klis-klas klasikoak!* proiektuak eta honen barnean aurkitzen den bildumak erakutsi nahi izan du, gaiaren inguruan ahaleginak eginez gero, irakasle nahiz ikasleentzako materiala sortuz, bidean aurkitzen diren oztopoei aurre egiteko gai izan ahal garela, bai irakasleok, baita ikasleek ere. Eduki kontzeptualak kontuan hartzeaz gain, haratago joan nahi izan dugu, prozedurazko eta jarrerazko edukiak giltzarri izanda. Horrela, amaitezinak diren liburu mardulen irakurketak deuseztatuz, dinamikoa izango den egitasmoa lortuz. Gure helburua ez da izan ikasleek idazle ezberdinen biografiak buruz ikastea edo irakurmen saio hutsak egitea, azken finean, ez dena egiten ahazten da eta egiten dena, aldiz,

gogoratzen da.

Etorkizunean, euskal autore zaharrak jorrazteko beste motatako lan batzuen proposamenaren beharra dugu eta hauek gure eskoletan lantzeko grina. Badirudi, gure gaian aurrerakuntzak sortzen ari direla, baina oraindik ere bultzada baten beharrean gaude. Anitzak dira egungo eskolak eskaintzen dizkigun baliabideak, beraz, horiek oinarri hartuta aurrerapausuak emateko prest egon behar gara; tertulia dialogikoak egiten, proiektu berritzaileak diseinatzen, besteak beste. Dena den, berrikuntza proiektuaren proposamenarekin, ate hori zabaldu dugularen ustea dugu, hezkuntza sistemak esparru honetan beharrezkoa zuen pentsamendu aldaketa hori abian jarritz.

Laburbilduz, hezkuntza-sisteman eta zehazki, Lehen Hezkuntzan, literatura klasikoaren barnean -euskal autore zaharren irakaskuntzan, alegia- oraindik lan handia egiteke dago. Ikusi dugun bezala, gaia ez dago agortua ezta zaharkitua ere, are gehiago, pil-pilean egon beharko litzatekeen mintzagaia dugula gure begien aurrean esango genuke. Egungo gazteei literatura horrek eskainiko dizkien onurak eta gozatzeko bideak erakutsi behar dizkiegu, eta hori da hain zuzen ere, lan honen bidez lortu nahi izan duguna. Euskal autore zaharrak beste modu batean ikustea, hots, ekarpen berri bat eginez posiblea dela gure hezkuntza-sisteman hauek ere lantzea, zailtasunei aurre eginez eta egungo baliabideek eskaintzen dizkiguten aukerak probetxuzkoak gertatuz.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Arozamena, A. (2006). *Juan Antonio Mogel Urquiza*. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Euskomedia Fundazioa, 2014-05-11an hartua hemendik:  
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/96511>
- Bilbao, G. (2008): *Juan Pérez de Lazarraga*. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Euskomedia Fundazioa, 2014-04-26an hartua hemendik:  
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/87616>
- Billelabeitia, M. (2009): *Etxepare, Bernart*. Euskal Literaturaren Hiztegia, Idazlanak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2014-04-22an hartua hemendik:  
<http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=393>
- Blomm, H. (1995): *El canon occidental*. Bartzelona: Anagrama.
- Calvino, I. (1993): *Por qué leer los clásicos*. Bartzelona: Tusquets.
- Cerrilo, P. C. (2007): *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria*. Bartzelona: Octaedro.
- Cerrillo, P.C. (2007a), *Educación literaria y canon escolar de lecturas*, Ministerio de Educación, 2014-02-4an hartua, hemendik:  
[http://docentes.leer.es/files/2012/03/art\\_prof\\_canonescolar\\_pedrocerrillo\\_acc.pdf](http://docentes.leer.es/files/2012/03/art_prof_canonescolar_pedrocerrillo_acc.pdf)
- Colomer, T. (2010): *Introducción a la Literatura Infantil y Juvenil*. Bartzelona: Síntesis.

- Egaña, I. (2010): *Klis Klasikoak: bilduma baten abentura 7 galderatan*, Behinola, 29-39, 2014-02-6an hartua, hemendik:  
<http://www.galtzagorri.org/behinola/dokumentuak/hitzordu-6.pdf>
- Eusko Jaurlaritz (2010): *Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumaren Dekretua*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014-02-22an hartua hemendik:  
<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2010/04/1002109a.pdf>
- Even-Zohar, I. (1978): *Papers in historical Poetics*. Tel Aviv: Porter I.
- Ezequiel, A. (2000): *Guía para diseñar proyectos sociales y culturales*. Argentina: Instituto de Ciencias Sociales aplicadas.
- García, C. (1998): *El viaje sobre el tiempo o la lectura de los clásicos*, El País. Madril. Urriak 27.
- García, J. (2000): *Los clásicos en la lecturas juveniles*, Universidad Complutense de Madrid, 2014-05-03an hartua hemendik:  
[http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/literatura-infantil-en-la-escuela--0/html/ff2f6bf0-82b1-11df-acc7-002185ce6064\\_3.html](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/literatura-infantil-en-la-escuela--0/html/ff2f6bf0-82b1-11df-acc7-002185ce6064_3.html)
- González, J.A., Ruiz, A.M. Coca, I., Lachica C. (2013): *Clásicos Escolares*, Junta de Andalucía, Consejería de Educación, 2014-02-4an hartua, hemendik:  
<http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/ishare-servlet/content/7a4adc71-6edb-4412-9a5b-080f5d4d94a9>
- Lopez, M. (2012): *Agustin Paskual Iturriaga*. Auñamendi Eusko Entziklopedia, Idazlanak. Euskomedia Fundazioa, 2014-05-18an hartua hemendik:  
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/56136>
- Lopez, M. (2008): *Mogel, Bizenta*. Euskal Literaturaren Hiztegia, Idazlanak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2014-05-15an hartua hemendik:  
<http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=715>
- Lluch, G. (2010), *Las lecturas de los jóvenes. Un nuevo lector para un nuevo siglo*. Bartzelona: Anthropos.
- Machado, A. M. (2002): *Lectura, escuela y creación literaria*. Madril: Anaya.
- Martin, I. (2009): *Agerre, Pedro "Axular"*. Euskal Literaturaren Hiztegia, Idazlanak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2014-05-03an hartua hemendik:  
<http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=15>
- Mendoza, A.M (2000): *Literatura infantil en la escuela*. Alikante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
- Merino, J.M. (2004): *Ecos y sombras del delirio quijotesco en Ficción continua*. Bartzelona: Seix Barral.
- Navarro, R. (2006): *¿Por qué adaptar los clásicos?*, TK, 18 zb, 18.
- Palacios, S. (2011): *El uso de los textos literarios clásicos españoles en el aula E/ LE*. Congreso Mundial de Profesores de Español, Instituto Cervantes. 2014-05-22an hartua hemendik:  
[http://comprofes.es/sites/default/files/slides/palacios\\_gonzalez\\_sergio\\_texto\\_bibliografia.pdf](http://comprofes.es/sites/default/files/slides/palacios_gonzalez_sergio_texto_bibliografia.pdf)
- Pozuelo Yvancos, J.M (1996): *Canon: ¿estética o pedagogía?* Ínsula, 600, 3-4.
- Romani.M. (2011): *Los clásicos en el aula: el caso de el Quijote*, Bartzelona: Puig Castellar Institutua, 2014-04-20an hartua hemendik:  
<http://elpuig.xeill.net/activitats/jornades-didactiques/el-quixot-pedagogia-en-accio/los-clasicos-en-el-aula-el-caso-de-el-quijote>
- Sandoval, C. (2012): *El cuento clásico en la era digital*. Universidad de Murcia, 2014-05-15ean hartua hemendik:  
<http://diversidad.murciaeduca.es/publicaciones/dea2012/docs/sandoval.pdf>
- Serrano, A. (2012): *Joanes Etxeberri Sarakoa*. Auñamendi Eusko Entziklopedia, Euskomedia Fundazioa, 2014-05-15an hartua, hemendik:



<http://www.euskomedia.org/aunamendi/151>

Sullà, E. (1998): *El debate sobre el canon literario*. Madril: Arco.

Teixidor, E. (2007): *La lectura y la vida*. Bartzelona: Ariel.